

## Altza-Herrera

Larraitz Garmendia (fnoa.: 943-391267)

**d**uela urtebete Altzan sortutako Zurrunbilo aldizkariak Lehen Gazte Topaketa antolatu du hilaren 5 eta 6rako. Ostiral arratsaldean hasiko dira topaketa hauek, 17.00etan egingo den aurkezpen ekitaldiarekin. Ordu erdi beranduago, Okupazioari buruzko mahaingurua egingo da Zapatari, Intxaurrondo, Txerrimuño eta Altzako ordekariekin.

19.00etan munduan zehar ibilitako zenbait bidaiarik hitz egingo dute beren bizipenez. 20.00etan malabaristak, txalapartariak eta antzerkilariak ariko dira.

**Ttak eta MCDk kontzertua emango dute larunbatean**

# Zurrunbilo Lehen Gazte Topaketa

Bi ordu beranduago bertso afaria izango da.


## Komunikabideak eta droga

Larunbaterako bi hitzaldi aurreikusita daude: 12.00etan Gasteizko Hala Bedi, Bilboko

Bala Bala eta Altzako Zurrunbilo komunikabideetako ordezkariak parte hartuko dute. Gainera, aldizkari eta fanzinen erakusketa ikusgai egongo da. Arratsaldean, Askagintza taldeko Txus Congil drogei buruz mintzatuko da.


Gaueko 21.00etarako kontzertu erakargarria antolatu dute: Ttak eta MCD. Kontzertura joateko 300 pezeta ordaindu behar dira.

Ekitaldi hauek guztiak Altzako Auzo Etxean egingo dira.



## Vesna abesbatza txapeldun

Herreran aritu izandako Vesna haur abesbatzak Kutxa Sari Berezia eta Ikuslegoaren Saria irabazi ditu Tolosako abesbatzen lehiaketan. Neskatilez osatutako abesbatza errusiarrak, 200 bat ikuslaren aurrean abestu zuen Herrerako San Luis elizan. Jendeari ikaragarri gustatu zitzaion errusiarren emanaldia.



**ADDICT®**  
AEROBIC LINE • ADDICT • RM  
Galtzerdiak

AEROBIC eta FITNESS,  
jantzi-musika eta osagarrietan  
espezialistak

KIROL MODA  
Euskal Herriko banatzailea


San Frantzisko 56 - Tfnoa.: (943) 32 24 40  
DONOSTIA - GROS

**KM**  
kulturunea


**GANBARA aretoa**

erakusketa  
1999ko azaroaren 4tik abenduaren 4ra

1933 -




**Gabriel Aresti**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamendua  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deporte

**BK** Bidebarrieta  
Kulturunea



BILBOKO UDALA  
Kultura eta Turismo Saria



AYTO. DE BILBAO  
Área de Cultura y Turismo